

LOMLOE: BENETAN KEZKATZEN GAITU

Zuzendari estimatuak:

LOMLOEri buruzko eztabaida areagotzen ari da egunotan.

Martxoaren 3an Ministroen Kontseiluan onartu zen LOE aldatzeko Lege Organikoaren Proiektua da LOMLOE. Gaur egun, Legebiltzarrean izapidetzen ari dira.

Testuak aldaketa garrantzitsuak eragingo ditu, funtsezko aldaketak, esango genuke, eta, hala ere, oso modu diskretuan ari da izapideak betetzen, gizartean kezka eta egonezin izugarria eragiten ari den pandemia baten erdian.

Hasierako testuari –berez oso kezagarria dena– onartu zaizkion zuzenketekin onartuz gero, itunpeko irakaskuntza egoera biziki zailean jarriko lukeen lege batez ari gara.

Arriskuan jarriko litzateke hezkuntza eredu publiko eta itunduaren osagarritasuna, familiek beren seme-alabentzako ikastetxea aukeratzeko duten askatasuna, eta itunpeko ikastetxeek, besterik ez bada, zalantzazko etorkizuna izango lukete, horrek dakarren guztiarekin, maila guztietan.

Ikastetxe sarearen programazioa, eskola postuen programazioa, ez litzateke gehiago gizartearen eskaria asetzera bideratuta egongo. Gobernuaren alderdiek proposatutako testuaren zuzenketek orokorrean plaza publikoak gaitzea planteatzen dute, eta horrek eragin handia izan lezake Hezkuntza Administrazioaren etorkizuneko plangintzetan. Ondorioz, egoera ez da batere pozgarria itunpekoentzat.

Azterketa sakona egiteko asmorik gabe, baina zuek nolabait kokatzeko, ERANSKIN gisa, itunpeko ikastetxeetan eragin handiena izan lezakeen aginduetako bati buruzko konparazio erreferentzia labur bat erantsi dizuegu: LOEren 109. artikulua (IKASTETXEEN SAREAREN PROGRAMAZIOA).

Hala ere, esan beharra dago dena ez dela txarra proiektu edo lege horretan, baina ikastetxe sarearen programazioari eta plangintzari eman nahi zaien bira garrantzitsua da, eta ez bada birarik gertatzen, behintzat horretarako tresnak jarri nahi dira.

Era berean, ez du ezer planteatzen itunen modulua eskola postuaren benetako kostua kontuan hartuta finkatzeari dagokionez. Erljioaren irakaskuntza atzeratzen du, hezkuntza bereziko zentro espezifikoak zalantzan jartzen...

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumenak ditu hezkuntzaren arloan, baina Estatuko legerian planteatutakoa bezalako aldaketa batek paradigma jakin batzuk aldaraz ditzake.

KRISTAU ESKOLA

Eusko Jaurlaritzak beti adierazi du bere uste osoa, bere apustua, sareen osagarritasunaren alde. Haiengan konfiantza dugu, haiekin hitz egingo dugu. Baina ez dugu ahaztu behar, Eusko Jaurlaritzaren barruan, gaur egun duen eraketan, LOMLOEren aldeko jarrera politikoak daudela. Horregatik, argi eta garbi funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztien alde jar zaitezten behar dugu.

Adostasuna behar dugu, akordio bat, euskal hezkuntza sistemaren esparruan. Hezkuntza akordio bat, itun bat, gutxieneko baldintza batzuk bermatuko dituena, sareen egungo osagarritasuna bermatuko duena, familiek denboran zehar etengabe egin duten aukeraketaren ondorio baita, itunpeko ikastetxeen etorkizuna eta iraunkortasuna bermatu ahal izateko.

Edonola ere, egoera kezagarria da. Familiek, irakasleek, ikastetxeko langileek eta hezkuntza komunitateak egoeraren berri izan behar dute. Bakoitzak dagokion esparrutik, itunpeko irakaskuntza defendatu behar dugu.

Bat egiten dugu itunpeko irakaskuntza autonomia erkidegoetan aurrera eramaten ari den kanpainarekin, aniztasunaren alde, hezkuntza eredu desberdinen alde, LOMLOEren aurka. Eskola katolikoak barne hartzen dituen Más Plurales plataformak webgune bat prestatu du lege horren aurka sinatzeko (www.masplurales.es).

Zuen ikastetxetik hausnarketa eta kezka horiek familiei, irakasleei eta ikastetxeko langileei helaraztera animatzen zaituztegu. Guztioi eragiten digu.

Etorkizuneko ekintza edo mugimenduen berri emango dizuegu.

Donostian, 2020ko azaroaren 11an.

MIKEL ORMAZABAL LOINAZ
ZUZENDARI OROKORRA
KRISTAU ESKOLA

LOMLOE. NOS PREOCUPA, Y MUCHO

Estimadas Directoras, estimados Directores.

Estos días se está agudizando el debate sobre la LOMLOE.

Un Proyecto de Ley Orgánica de modificación de la LOE (LOMLOE), aprobado en el Consejo de Ministros del 3 de marzo de 2020, y actualmente en tramitación parlamentaria.

Un texto que, a pesar de contener importantes modificaciones, nucleares, está cumpliendo trámites de forma discreta, en medio de una pandemia que está generando gran preocupación y desasosiego en la sociedad.

Estamos hablando de una ley que, de aprobarse en los términos resultantes de las enmiendas que se han ido aprobando al texto inicial, ya de por sí muy preocupante, llevaría a la enseñanza concertada a una situación muy comprometida.

Se estaría poniendo en peligro la complementariedad de los modelos educativos, pública-concertada, la libertad de las familias para elegir el centro educativo para sus hijos e hijas, y los centros concertados tendrían un futuro, cuando menos, incierto, con todo lo que ello implica, a todos los niveles.

La programación de red de centros, la programación de puestos escolares, ya no estaría orientada a satisfacer la demanda social. Las enmiendas al texto propuestas por partidos que sustentan el gobierno plantean habilitar plazas públicas de manera generalizada, "suficiente", lo que podría tener gran incidencia en las futuras planificaciones de la Administración Educativa. Un escenario nada alentador para la concertada.

Sin ánimo de ser exhaustivos, por acercaros a la situación, os acompaños como ANEXO una breve referencia comparativa sobre uno de los preceptos que podrían tener mayor incidencia en los centros concertados, el artículo 109 de la LOE (PROGRAMACIÓN DE LA RED DE CENTROS).

Bien es cierto que no todo es malo en dicho proyecto, en dicha ley, pero el giro que se pretende dar a la programación de la red de centros, a la planificación, es importante, o al menos se ponen las herramientas para ello.

Tampoco plantea nada en relación a que la fijación del módulo de conciertos se haga teniendo en cuenta el coste real del puesto escolar. Posterga la enseñanza de la religión, cuestiona los centros específicos de educación especial ...

KRISTAU ESKOLA

La Comunidad Autónoma de Euskadi tiene competencias en materia educativa, pero una modificación como la planteada en la legislación del estado podría hacer cambiar determinados paradigmas.

El Gobierno Vasco ha manifestado siempre su convicción, su apuesta, por la complementariedad de redes. Confiamos en ellos, hablaremos con ellos. Pero no debemos olvidar que, dentro del Gobierno Vasco, en su configuración actual, encontramos posturas políticas de apoyo a la LOMLOE. Por ello necesitamos su posicionamiento claro en defensa de todos los centros sostenidos con fondos públicos.

Necesitamos un consenso, un acuerdo, en el marco del sistema educativo vasco. Un acuerdo, un pacto educativo, que garantice unos mínimos, que garantice la actual complementariedad de redes, fruto de la continuada elección en el tiempo por parte de las familias, que garantice el futuro, la sostenibilidad de los centros concertados.

En cualquiera de los casos la situación es preocupante. Las familias, el profesorado, el personal del centro, la comunidad educativa, deben estar informados de la situación. Tenemos que defender, desde nuestros respectivos ámbitos, la enseñanza concertada.

Nos unimos a la campaña que la enseñanza concertada está llevando adelante en las distintas Comunidades Autónomas, en defensa de la pluralidad, de los distintos modelos educativos, en protesta a la LOMLOE.

La Plataforma Más plurales, a la cual pertenece ESCUELAS CATÓLICAS, ha habilitado un espacio web para firmar contra dicha ley (www.masplurales.es).

Os animamos a que hagáis llegar desde vuestro centro estas reflexiones, estas inquietudes, a vuestras familias, al profesorado, al personal del centro. Nos afecta a todos, a todas.

Os mantendremos informados de posibles acciones o movimientos futuros.

Donostia – San Sebastián, a 11 de noviembre de 2020.

MIKEL ORMAZABAL LOINAZ
DIRECTOR GENERAL
KRISTAU ESKOLA